

Gure enpresan pertsonak zaintzen ditugu, izan ere, gure bezeroen segurtasuna eta ongizatea da gure izatearen alderdirik garrantzitsuena. Hori dela eta, beraiekin sortuta harremana pertsonala eta kalitatezkoa izan dadin esfortzua egiten dugu.

Bezero berriak erakartzeko eta egungo bezeroak mantentzeko harreman estrategiak argi eta garbi definitu ditugu. Bezeroekiko harremanen kudeaketa ezinbestekoa bait da gure negozio-ereduaren arrakastarako, eta horretarako, honako alderdi hauetan oinarritzen gara:

1. Laguntza pertsonalizatua: Bezero bakoitzaren beharrak sakon aztertzen ditugu, aurrez aurreko edo urrutiko komunikazio kanalen bidez (telefonoa, emaila, eta abar).

2. Autozerbitzua: Web-aplikazio eta plataforma automatizatuen bidez, bezeroek beren kabuz behar dituzten eragiketak burutzeko aukera eskaintzen dugu.

3. Komunitateak: Gure produktuen inguruan bezeroen arteko elkarrekintza sustatzen dugu, esperientziak eta iritziak partekatzeko foro eta espazio digitalekin.

4. Zerbitzu automatizatuak: Galdera eta eskaera errazenei erantzuteko, erantzun automatikoak erabiltzen ditugu, gure arreta-zerbitzuak eraginkorragoak izan daitezen.

5. Baterako sorkuntza: Bezeroekin elkarlanean, haien iritzia eta ideiak gure zerbitzuak hobetu edo produktu berriak sortzeko erabiltzen ditugu.

6. Bezeroekiko harremanen batzorde ebaluatzailea: batzorde honen helburua ondorengo esparruak baloratzea da:

- Bezeroa gure balio-proposamenari lotuta mantentzeko hartutako ekintzen xehetasunak.
- Bezeroa gure negozio-ereduaren parte nola bihurtzen dugun: adibidez, lankidetzak-akordioak edo fidelizazio-programak.

7. Online salmenta zerbitzua: zerbitzu automatizatuak eta arreta pertsonalizatua uztartuz, gure bezeroek eskaerak egiten dituzte gure webgunearen bidez, denda fisikoetara joan beharrik gabe. Gainera, zalantzak argitzeko arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, harreman estua eta kalitatezko esperientzia bermatzeko.

8. Instalazioaren bermea 2 urtekoa izango da.

9. Post-salmenta zerbitzua: Instalazioa eta gero edozein arazo egotekotan gure web-gunean laguntza eskatzeko aukera egongo da.